


ISEI - IVEI

**Rs1.2.3. CURRICULUM KOMPETENZIA LHko 4.
MAILAN: MATEMATIKA.**





ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

Edizioa: 2013ko abendua

© ISEI-IVEI-k argitaratua

ISEI-IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatuta eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

LAN TALDEA

Araceli de Francisco

M^{re} Paz Martínez

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



Rs1.2.3

Curriculum konpetentzia LHko 4. mailan:
Matematika.

SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



Sarrera	4
Rs1.2.3.1 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera <i>Matematikarako konpetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.	6
Rs1.2.3.2 taula eta grafikoa: LHko 4. mailako ikasleek <i>Matematikarako konpetentzian</i> lortutako puntuazio zuzenen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).	7
Rs1.2.3.3 taula: LHko 4. mailako ikasleek konpetentziaren dimentsioetan (<i>kantitatea; espazioa eta forma; aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna; problemen ebazpena</i>) lortutako puntuazio zuzenen bilakaera, orokorra eta sexuaren arabera.	8
Rs1.2.3.4 taula: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa <i>Matematikarako konpetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza.	10



MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010 eta 2011¹.

Adierazle honek Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Matematikarako kompetentzian* izan duten errendimendu-mailari buruzko informazioa ematen du. Emaizak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2009, 2010 eta 2011n gauzatu ziren Ebaluazio Diagnostikoetan lortutako emaitzak dira. Ebaluazioan 250 puntuko batez bestekoa finkatu da, 50 puntuko desbiderapen tipikoa eta hiru errendimendu-maila.

Emaizak zenbait aldagai kontuan izanik aztertu dira: ikasleen sexua, kompetentziaren dimentsioak (*kantitatea; espazioa eta forma; aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna; problemen ebazpena*), irakasteredua², eta hezkuntza-sarea³ (geruzak), indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmilarekiko egokitasuna (jaioturtea eta irakasmila), gurasoen ikasketa mailarik altuena, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.

2009-2011 aldian, errendimendu-maila bakoitzeko ikasleen ehunekoaren bilakaera positiboa izan da maila aurreratuan (3,5 puntu), baina hasierako mailan eta erdi-mailan jaitsi egin da (3,2 puntu eta 0,3 puntu hurrenez hurren).

Sexuaren aldagaiaren arabera, datuek adierazten dute maila aurreratuan nesken ehunekoa eta mutilen ehunekoa igo egin direla, 2,1 puntu eta 4,7 puntu hurrenez hurren. Hiru ebaluazioetako erdi-mailan nesken ehunekoa mutilena baino handiagoa izan da, eta maila aurreratuan, berriz, mutilen ehunekoa handiagoa izan da.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek lortutako puntuazio zuzenak geruza guztietan jaitsi ziren 2010ean, Itunpeko D eredu 1 puntutik A eredu publikoko 9 puntura; 2011n, berriz, puntuazioak geruza guztietan igo ziren, A eredu publikoan izan ezik. Igoerarik handiena (8 puntu) Itunpeko D ereduan izan zen eta igoerarik txikiena (1 puntu) itunpeko A ereduan izan zen. Aipatu beharrekoa da, baita ere, hiru ebaluazioetan sei geruzetako puntuazioak, handienetik txikienera edo alderantziz ordenaturik, antzeko ordena mantentzen dutela. Puntuaziorik handiena itunpeko A ereduan izan da, 2011n itunpeko A eta D eredu etako puntuazioak berdina izan diren arren, eta puntuaziorik txikiena A eredu publikoan izan da.

*Matematikarako kompetentziaren dimentsioei dagokienez, azpimarratu behar da ezin dela esan hiru ebaluazioetan zehar bilakaera bat izan denik, ebaluazio bakoitzeko item kopurua txikiegia delako. Gainera, 2010eko eta 2011ko ebaluazioetako datuak bakarrik daude eskuragarri. Baina bai hartu daitezkeela kontuan neskek eta mutilek lau dimentsioetan lortu zituzten puntuazioak. 2010eko ebaluazioan mutilek neskek baino puntuazio altuagoak lortu zituzten lau dimentsioetan. Alderik handiena *kantitatea**

¹ Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010 eta 2011. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

² EAEn hiru irakasteredu daude: A eredua (irakas-hizkuntza gaztelania), B eredua (irakas-hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D eredua (irakas-hizkuntza euskara).

³ EAEn bi hezkuntza-sare daude, publikoa eta itunpekoa, biak diru publikoarekin finantzatuak.



Rs1.2.3

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Matematika.

SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



dimentsioan izan zen, 8 puntukoa. Alderik txikiena *espazioa eta forma* dimentsioan izan zen, 2 puntukoa. 2011n mutilek neskek baino 7 puntu gehiago lortu zituzten *problemen ebazpena* dimentsioan, alderik handiena. *Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna* dimentsioan neskek eta mutilek puntuazio berdina lortu zuten.

Ikasleen maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren indizearen (ISEK) aldagaia kontuan hartzean, ISEK indizearen eta errendimendu-mailen arteko erlazioak adierazten du ISEK indizea zenbat eta altuagoa izan, maila aurreratuko ikasleen ehunekoa (% 49,3) gero eta handiagoa dela; ISEK indizea zenbat eta apalagoa, hasierako errendimendu-mailako ikasleen ehunekoa (% 21,2) gero eta handiagoa da.

Irakasmilarekiko adin egokirik ez duten ikasleen ehunekoa % 8 ingurukoa izan da hiru ebaluazioetan. 2011ko ebaluazioan errendimendu-maila aurreratuan adin egokiko ikasleen % 41,8 egon zen, baina adin ez-egokiko ikasleen % 8,9 bakarrik.

Hezkuntza-sareari dagokionez, hasierako errendimendu-mailako ikasleen ehunekoa ikastetxe publikoetan itunpeko ikastetxeetan baino 6 puntu altuagoa izan dela ikus daiteke. Maila aurreratuko ikasleen ehunekoa, berriz, itunpeko ikastetxeetan ikastetxe publikoetan baino 10,2 altuagoa da. Ikastetxe publikoetan maila aurreratuko ikasleen ehunekoa hasierako mailako ikasleen ehunekoa baino 19,7 puntu handiagoa da; itunpeko ikastetxeetan hasierako mailako eta maila aurreratuko ehunekoen arteko aldea alde handiagoa da, 35,9 puntura heldu dena.

Gurasoen ikasketa mailarik altuena aztertutik, antzematen da gurasoen ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, maila aurreratuko ikasleen ehunekoa hainbat eta handiagoa izan dela. Ikasketa maila zenbat eta apalagoa, hasierako mailako ikasleen ehunekoa hainbat eta handiagoa izan da.

Ikasle etorkinen ehuneko orokorra % 6 ingurukoa izan da hiru ebaluazioetan. Jaiolekuaren aldagaiak ere baditu zenbait ñabardura: maila aurreratuan bertako ikasleen % 40,5 kokatu da, baina ikasle etorkinen % 19,4 bakarrik.

Etxeko hizkuntza dela eta, aipatu behar da maila aurreratuko ikasleen % 52 ingururen etxeko hizkuntza euskara dela, proba zein hizkuntzatan egin den kontuan izan gabe. Etxeko hizkuntza euskara ez den kasuetan, proba gaztelaniaz egin denean, ikasleen % 39 maila aurreratuan kokatu da; proba euskaraz egin denean, ikasleen % 32,4 kokatu da errendimendu-maila horretan.



Rs1.2.3

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Matematika.



SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



Rs1.2.3.1 taula eta grafikoak:

LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Matematikarako kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.

	Errendimendu maila HASIERA			Errendimendu maila ERDIA			Errendimendu maila AURRERATUA		
	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak
2009	14,7	14,2	15,2	49,5	51,4	47,7	35,8	34,5	37,1
2010	15,0	15,1	14,9	52,5	55,6	49,5	32,5	29,3	35,6
2011	11,5	11,9	11,2	49,2	51,5	47,0	39,3	36,6	41,8



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010 eta 2011.



Rs1.2.3

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan:
Matematika.


SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



Rs1.2.3.2 taula eta grafikoa:

LHko 4. mailako ikasleek *Matematikarako kompetentzia*n lortutako puntuazio zuzenen bilakaera geruzaren arabera (hezuntza-sarea eta irakasteredua).

	2009	2010	2011
A Publikoa	223	214	218
B Publikoa	241	237	243
D Publikoa	246	244	251
A Itunpekoa	262	258	263
B Itunpekoa	256	253	260
D Itunpekoa	255	254	263



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010 eta 2011.



Rs1.2.3

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Matematika.

Rs1.2.3.3 taula:

LHko 4. mailako ikasleek kompetentziaren dimentsioetan (*kantitatea; espazioa eta forma; aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna; problemen ebazpena*) lortutako puntuazio zuzenen bilakaera, orokorra eta sexuaren arabera.

		2010	2011
Guztira	Guztira	248	255
	Neskak	245	252
	Mutilak	251	258
<i>Kantitatea</i>	Guztira	250	250
	Neskak	246	248
	Mutilak	254	252
<i>Espazio eta Forma</i>	Guztira	250	250
	Neskak	249	249
	Mutilak	251	251
<i>Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna</i>	Guztira	250	250
	Neskak	246	250
	Mutilak	253	250
<i>Problemen ebazpena</i>	Guztira	250	250
	Neskak	248	246
	Mutilak	252	253

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2010 eta 2011.



Rs1.2.3



Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan:
Matematika.

SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



Rs1.2.3.3 grafikoak:

LHko 4. mailako ikasleek kompetentziaren dimentsioetan (*kantitatea; espazioa eta forma; aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna; problemen ebazpena*) lortutako puntuazio zuzenen bilakaera, orokorra eta sexuaren arabera.



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2010 eta 2011.



Rs1.2.3

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Matematika.

SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



Rs1.2.3.4 taula:

LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Matematikarako kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza.

		Ikasle %			Hasierako maila	Erdi-maila 2011	Maila aurreratua
		2009	2010	2011			
ISEK	Maila baxua	14,6	15,9	14,9	21,2	53,8	25,0
	Maila ertain baxua	23,4	24,2	24,2	14,2	52,7	33,1
	Maila ertain altua	28,0	26,6	27,3	10,3	49,5	40,3
	Maila altua	34,0	33,3	33,6	6,4	44,3	49,3
Egokitasuna	Adina bat dator irakasmalarekin	92,7	91,9	92,3	9,6	48,6	41,8
	Adina EZ dator bat irakasmalarekin	7,3	8,1	7,7	35,1	55,9	8,9
Titulartasuna	Publikoa	50,2	50,0	50,3	14,5	51,2	34,2
	Itunpekoa	49,8	50,0	49,7	8,5	47,1	44,4
Gurasoen ikasketa mailarik altuena	Derrigorrezko ikasketak bukatu gabe	3,3	3,1	3,8	31,9	55,5	12,6
	Derrigorrezko ikasketak	12,9	12,6	14,6	19,1	57,1	23,8
	Batxilergoa, HZ	34,6	34,0	38,3	11,9	54,0	34,1
	Goi mailako ikasketak	41,0	41,3	43,3	6,5	41,7	51,8
Jaioterria	Autoktonoa	94,7	93,9	94,2	10,7	48,8	40,5
	Emigratzailea	5,3	6,1	5,8	25,0	55,6	19,4
Familia-hizkuntza* euskara	Probaren hizkuntza euskara	97,3	93,1	96,1	6,1	42,3	51,6
	Probaren hizkuntza gaztelania	2,7	6,2	3,9	6,0	41,0	53,0
Familia-hizkuntza* euskara EZ	Probaren hizkuntza euskara	55,8	53,1	56,8	14,1	53,5	32,4
	Probaren hizkuntza gaztelania	44,2	45,3	43,2	12,1	48,4	39,6

*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010 eta 2011.



Rs1.2.3


Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Matematika.

SISTEMA VASCO
DE INDICADORES
EDUCATIVOS



Rs1.2.3.4 grafikoa:

LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Matematikarako kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiotekoa, etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza.



*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010 eta 2011.